



# 2017ko URRIA, AZAROA ETA ABENDUKO PROGRAMAZIOA

## Ekintzak

EKOETXEA TXINGUDI Txingudiko paduretako informazio zentroa  
2017ko urria-abendua



**ekoetxea**  
Txingudi



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANINGITZA  
ETA ETXEBIZITZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

# Programazioa



## HEGAZTIEN MUNDUKO EGUNA

*Urriak 1, igandea / 10:00 – 14:00*  
*Tokia: Plaiaundiko Parke Ekologikoa*  
*Publiko guztiari irekita*

Adin guztietarako jarduera askoko parte-hartze jardunaldia Plaiaundin:

- Hegaztien behaketa guneak teleskopioez dohatuta
- Umeentzako tailerrak
- Habi kutxen tailerra
- Informazio mahaia
- Adin guztietarako jokoak

Gipuzkoako talde ornitologiko nagusien parte-hartzearekin.



## “GAUEKO BIZILAGUNAK” ERAKUSKETA

*Irailaren 1etik urriaren 31era*  
*Tokia: Ekoetxea Txingudi*

Kiropteroen gaineko 6 panelez osatutako SECEMU-ko (Saguzarren Kontserbaziorako eta Ikerketarako Espainiako Elkarte) erakusketa, saguzarren ezaguera eta bere onura ekosistemikoak sustatzeko helburuarekin.



## BISITA ORNITOLOGIKOA

*Azaroak 5, igandea / 10:00 – 12:00*  
*Gidaria: Gorka Gorospe*  
*Tokia: Plaiaundiko Parke Ekologikoa*  
*Publiko guztiari irekita*  
*Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea Ekoetxea Txingudin*

Migrazioan zehar gure padura bisitatzen dituzten hegaztiak identifikatu eta hauen biologiā ezagutzeko bisita.

# Programazioa



Ilustrazioa: Xabier Mendarte

## NATURA-MARRAZKIAN HASTEKO IKASTAROA

Azaroak 4, 11 eta 18 / 10:00 – 13:00

Irakaslea: Xabier Mendarte

Tokia: Ekoetxea Txingudi

Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea Ekoetxea Txingudin

Ikastaroaren helburua natura-marrazkiko hastapenerako oinarritzko aholkuak ematea da, batez ere hegaztiak marrazteko. Saio praktikoen bitartez, erabiltzen diren materialak zein diren ikusiko ditugu, oinarritzko marrazkiak nola egin eta kolorea eta argia nola aplikatu.



Argazkia: Surfrider Foundation Europe

## ITSAS ZABOR-BILKETA

Azaroak 25, larunbata / 12:00

Tokia: Plaiaundiko Parke Ekologikoa

Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea Ekoetxea Txingudin

Hondakinen prebentziorako Europako Astearen buruan eta Surfrider Foundation Europe-kin elkarlanean, borondatezko jarduera egingo da Plaiaundiko itsas zaborra biltzeko Itzaberriko gunean, Ocean Initiatives bilketa-programa barruan.



## ARTE PLASTIKA TAILERRA

Abenduak 2, larunbata / 11:00

Tokia: Ekoetxea Txingudi

Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea Ekoetxea Txingudin

6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako eskulan tailerra. Berta, Txingudiko padurak adierazteko horma-irudia eraikiko da material desberdinak erabiliz.

“Il Duomo” elkarte artistikoko kideak diren Udal-Akademiako irakasleen eskutik.





### **Ekoetxea Txingudi - Plaiaundiko Parke Ekologikoa**

Pierre Loti ibilbidea 20304 Irun (Gipuzkoa)

Tel.: 943 619 389

[txingudi@euskadi.eus](mailto:txingudi@euskadi.eus)

[www.euskadi.net/txingudi](http://www.euskadi.net/txingudi)



[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)

[www.euskadi.eus/txingudi](http://www.euskadi.eus/txingudi)  
[txingudi@euskadi.eus](mailto:txingudi@euskadi.eus)

**943 619 389**



**ekoetxea**

Txingudi



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA